



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea / Vocal

Imanol Zubizarreta Arteche

Kidea - Idazkaria / Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

**Resolución 9/2022 ebazpena**

Recurso 3/2022 errekursoa

TELEFÓNICA SOLUCIONES DE INFORMÁTICA Y TELECOMUNICACIONES, S.A.U. enpresak (TELEFONICA aurrerantzean) kontratacio arloko errekurso berezia jarri du IZFE-INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ERAKUNDEAren kontratacio organoaren 2022ko urtarrilaren 17ko erabakiaren aurka, zeinaren bidez esleitu baitzen ingurune banatuetako biltegiratzea berritzeko kontratua (210027 esp.) ECONOCOM SERVICIOS, S.A. enpresari. Errekurso horren inguruan, Kontratacio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaurko bileran eta goian adierazitako kideak bertaratuta, honako erabaki hau hartu du aho batez.

**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA.-** Auzitegi honetako erregistro elektronikoan 2022ko otsailaren 2an aurkeztutako idazkiaren bidez, TELEFÓNICAk kontratacio arloko errekurso berezia jarri zuen ebazpen honen idazpuruan aipatutako egintzaren aurka.

**BIGARRENA.-** Auzitegiak kontratacio erakundeari igo zion errekursoa, eta, Sektore Publikoko Kontratuai buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratacio expedientea eta dagokion txostena eskatu zizkion (otsailaren 7an eta 8an jaso ziren).

Halaber, ofizio horretan gogorarazi zitzaion, kontuan hartuta errekursoa adjudikazio egintza baten aurka aurkeztu zela, kontratacio expedientearen izapideztea etenda gelditzen zela, SPKL 53. artikuluan xedatutakoaren arabera.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por TELEFÓNICA SOLUCIONES DE INFORMÁTICA Y TELECOMUNICACIONES S.A.U. (en adelante, TELEFÓNICA) contra la resolución del órgano de contratación de la SOCIEDAD FORAL DE SERVICIOS INFORMÁTICOS-IZFE, S.A. de 17 de enero de 2022 por la que se adjudica el contrato de “Renovación del almacenamiento de entornos distribuidos” (expediente 210027) a la empresa ECONOCOM SERVICIOS, S.A., el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

**ANTECEDENTES DE HECHO**

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado en el registro electrónico de este Tribunal el día 2 de febrero de 2022 TELEFÓNICA interpuso recurso especial en materia de contratación contra el acto citado en el encabezamiento de esta resolución.

**SEGUNDO.-** El Tribunal remitió el recurso a la entidad contratante y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe, que se recibieron los días 7 y 8 de febrero.

Le recordaba asimismo que, dado que el recurso se había interpuesto contra el acto de adjudicación, la tramitación del expediente de contratación quedaba en suspenso en virtud de lo dispuesto en el artículo 53 LCSP.



**HIRUGARRENA.-** SPKLren 56.3 artikula betez, ECONOCOM SERVICIOS S.A.ri helarazi zitzaison errekursoa, bost egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan zitzan.

Auzitegiaren erregistroan martxoaren 1ean sartu zen idazkiaren bidez aurkeztu zituen alegazioak, eta, bertan, errekursoa ezesteko eskatu zuen.

**TERCERO.-** En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP, se dio traslado del recurso a ECONOCOM SERVICIOS, S.A., para que en el plazo de cinco días hábiles pudiera formular alegaciones.

Las presentó mediante escrito que tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 1 de marzo, en el que termina solicitando la desestimación del recurso.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### Errekursoaren onargarritasuna

#### **LEHENENGOA.- Xedea.**

Errekursoa hornidurako eta zerbitzuetako kontratu mixto baten adjudikazioaren aurka jarri da; kontratu horren balio zenbatetsia 1.700.000 eurokoa da.

Beraz, errekurritutako egintzaren aurka kontratacio arloko errekurso berezi bat aurkez zitekeen, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikuluak, 1 a) eta 2 c) apartatuetan.

#### **BIGARRENA.- Eskumena.**

IZFE, S.A. foru merkataritza sozietateak izapideutako adjudikazio procedura baten barruan emandako egintza baten aurkaratzea denez gero, hura ebazteko eskumena Auzitegi honi dagokio, hala agintzen baitu 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, Kontratu Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duenak, 2.1 artikuluan.

#### **HIRUGARRENA.- Epea**

Errekursoa SPKLren 50.1.d) artikuluan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epearen barruan aurkeztu da, kontuan hartuta errekurritutako akordioa urtarrilaren 18an argitaratu zela.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Admisibilidad del recurso

#### **PRIMERO.- Objeto.**

El recurso se interpone contra la adjudicación de un contrato mixto de suministro y de servicios, cuyo valor estimado asciende a 1.700.000 euros.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1 a) y 2 c) del artículo 44 LCSP.

#### **SEGUNDO.- Competencia.**

Tratándose de la impugnación de un acto dictado en el seno de un procedimiento de adjudicación tramitado por la sociedad mercantil foral IZFE, S.A., la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

#### **TERCERO.- Plazo.**

El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.d) LCSP, si se tiene en cuenta que el acuerdo recurrido fue publicado el día 18 de enero.



## LAUGARRENA.- Legitimazioa.

Errekursoa jartzeko legitimazioa du errekurtsogileak, SPKLren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, parte hartu duen lizitazio baten adjudikazioa aurkaratzen baitu.

## CUARTO.- Legitimación.

La recurrente está legitimada para interponer el recurso de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, dado que impugna la adjudicación de una licitación a la que ha concurrido.

### Auziaren mamia

## BOSGARRENA.- Errekurritutako jarduketa.

2021eko irailaren 8ko ebatzen bidez, IZFE, S.A.ren kontratacio organoak onartu zuen ingurune banatuetako biltegiratzea berritzeko kontratua (210027 esp.) lizitatzeko prozedura, eta Kontratacio Publikoa Euskadin Plataforman argitaratu zen irailaren 10ean.

### Fondo del asunto

## QUINTO.- Actuación recurrida.

Por Resolución del 8 de septiembre de 2021 el órgano de contratación de IZFE, S.A. (en adelante, IZFE) aprobó el procedimiento de licitación del contrato de “Renovación del almacenamiento de entornos distribuidos” (expediente 210027), cuyo anuncio fue publicado en la Plataforma Contratación Pública en Euskadi el 10 de septiembre.

Kontratuaren xedea da, oinarri teknikoen agirian deskribatzen denaren arabera:

Es objeto del contrato, según se describe en el pliego de bases técnicas:

- Bloke motako (SAN) eta fitxategi motako (NAS) biltegiratzerako beharrezkoa den hardware-ekipamendua hornitza, egungo biltegiratze azpiegituraren osagai guztien berrikuntza teknologikoa egiteko. Azpiegitura hori III. eranskinean (Egungo konfigurazioa) deskribatuta dago.

*“- El suministro del equipamiento hardware necesario para almacenamiento tipo bloque (SAN) y tipo fichero (NAS) para la renovación tecnológica de todos los componentes de la actual infraestructura de almacenamiento, descrita en el “Anexo-III-Configuración Actual”.*

- Lizentzia guztiak eta lotutako softwarea hornitza.

*- La provisión de todas las licencias y del software asociado.*

- Hornitutako azpiegitura osoaren (hardwarea, softwarea eta lizenziak) euskarri eta mantentze zerbitzuak ematea.

*- Los servicios de soporte y mantenimiento de toda la infraestructura: hardware, software y licencias, suministrada.*

- Hornitutako elementu guztiak instalatzeko, ezartzeko, konfiguratzeko eta produkzioan jartzeko zerbitzuak ematea, egungo konfiguraziotik abiatuta.

*- Los servicios de instalación, implantación, configuración y puesta en producción de todos los elementos suministrados, partiendo de la configuración actual.*

Horniduraren gutxieneko baldintzak eta ezaugarriak II. eranskinean (Horniduraren errekerimenduak) zehazten dira.

*Los requisitos y características mínimas del suministro se detallan en el Anexo-II-Requerimientos del Suministro”.*

Lau enpresek aurkeztu zuten eskaintza:

Presentaron oferta cuatro empresas:

-TELEFÓNICA SOLUCIONES DE INFORMÁTICA Y COMUNICACIONES, S.A.U.  
-ECONOCOM SERVICIOS, S.A.

-TELEFÓNICA SOLUCIONES DE INFORMÁTICA Y COMUNICACIONES, S.A.U.  
-ECONOCOM SERVICIOS, S.A.



-DATA BASE STORAGE, S.L.

-VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI, S.L.

Bigarren artxibo elektronikoa ireki ondoren (balio-judizio baten arabera baloratu beharreko dokumentazioa), kontratacio mahaiak eskatu zien IZFEko teknikariei aztertzeko aurkeztutako eskaintzak, egiazatzeko baldintza agiriek bat zetozela eta egiteko zegokion balorazioa.

DATA BASE STORAGE, S.L. enpresaren eskaintza baztertu egin zen ez zituelako betetzen baldintza agirietan ezarritako baldintza teknikoak, eta VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI, S.L.rena, ez zuelako gutxieneko puntuaziao lortu balio judizioaren araberako adjudikazio irizpideen balorazioan.

Azken horien puntuaziao onartu ondoren, mahaiak zabaldu zituen eskaintza ekonomikoak eta formula bidez ebaluatu beharreko irizpideen inguruko dokumentazioa biltzen zitzuten fitxategi elektronikoak, eta bere balorazioaren araberako puntuazioak onartu zituen.

Saio berean, mahaiak erabaki zuen proposamena egitea kontrataua adjudikatzeko ECONOCOM SERVICIOS, S.A. enpresari, horren eskaintza izan baitzen guztizko puntuazio altuena eskuratu zuena.

Kontratacio organoak erabaki zuen mahaiaren proposamena onartzea eta ECONOCOM SERVICIOS, S.A.ri errekerimendua egitea hamar eguneko epean aurkez zezan kontrataua adjudikatzeko dokumentazioa.

Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, IZFEko kontratacio organoak 2022ko urtarrilaren 17ko ebazpenaren bidez ebatzi zuen kontrataua ECONOCOM enpresari adjudikatzea. TELEFÓNICAk ebazpen horren aurka jarri du errekursoa.

-DATA BASE STORAGE, S.L.

-VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI, S.L.

Tras la apertura del archivo electrónico nº DOS (documentación a valorar conforme a un juicio de valor), la mesa de contratación solicitó del personal técnico de IZFE que analizase las ofertas presentadas, verificase su ajuste a los pliegos y realizase la valoración correspondiente.

A la vista del informe de valoración técnica, la mesa acordó excluir la oferta de DATA BASE STORAGE, S.L. por no cumplir los requerimientos técnicos exigidos en los pliegos, y la de VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI, S.L. por no alcanzar la puntuación mínima en la valoración de los criterios de adjudicación sujetos a juicio de valor.

Una vez aprobada la puntuación de estos últimos, la mesa procedió a la apertura de los archivos electrónicos que contenían la oferta económica y la documentación de los criterios evaluables mediante fórmulas, y aprobó las puntuaciones resultantes de su valoración.

En la misma sesión la mesa acordó proponer la adjudicación del contrato a la empresa ECONOCOM SERVICIOS, S.A. (en adelante, ECONOCOM), cuya oferta había obtenido la mayor puntuación total.

El órgano de contratación resolvió aceptar la propuesta de la mesa y requerir a ECONOCOM para que en el plazo de diez días presentara la documentación necesaria para adjudicar el contrato.

Tras la presentación de la documentación requerida, por resolución del 17 de enero de 2022 el órgano de contratación de IZFE resolvió adjudicar el contrato a ECONOCOM, resolución contra la que TELEFÓNICA ha interpuesto el presente recurso.



## SEIGARRENA.- Errekurtsogilearen jarrera.

TELEFÓNICAk, zeinaren eskaintza behin betiko sailkapenean bigarren postuan geratu baitzen, esleipenaren aurka egin du, uste duelako adjudikaziodunaren eskaintza lizitaziotik kanpo utzi behar zela, ez zituelako bi baldintza tekniko betetzen; hain zuzen ere, agiri teknikoaren II. eranskinean (Horniduraren errekerimenduak) eskatzen direnak.

1) Eranskin horrek honako hau eskatzen du bloke motako biltegiratzerako eskakizun partikularren artean:

Proposatutako azpiegiturak urruneko erreplikako sistemak izan beharko ditu, Recovery Time Objective (RTO)=0 eta Recovery Point Objective (RPO)=0 duen Aktivo/Aktivo natibo bat eskanikoa duena.

Errekurtsogileak alegatu du adjudikaziodunaren eskaintza teknikoak ez duela behar bezala justifikatu edo ez duela bete RTO=0 balioa. Aitortzen du ez duela lizitatzailak aurkeztutako dokumentaziorako irizpiderik, baldintza hori betetzeari dagokionez, konfidentialia delako; baina, bere alegazioak NetAPPek (adjudikaziodunak eskaintzen dituen ekipoen fabrikatzaileak) argitaratutako dokumentazio ofizialean oinarritzen ditu. Dokumentazio horretan oinarrituta, alegatzailak ondorioztatzen du ezen NetAPPek esplizituki dokumentatzen badu ere bere konponbideak RPO=0ren balioa ematen duela, dokumentu bakar batean ere ez du, esplizituki eta modu baliokidean, adierazten RTO=0 balioa ematen duenik. Aldiz, beste fabrikatzaile batzuek RTO=0 balioaren dokumentazioa aurkezten dute ofizialki eta publikoki.

Gaineratu duenez, adjudikaziodunaren eskaintzak ez du RTO=0 balio hori islatzen; aitzitik, RTO balioa gutxi gorabehera zerotik hurbil egon daitekeela adierazten duten hainbat balioren erreferentziak ematen ditu, baina baldintza agiri teknikoak II. eranskinean zehazki eskatzen duen RTO=0 baliora iritsi gabe.

2) Eranskin horrek berak, fitxategi motako

## SEXTO.- Posición de la recurrente.

TELEFÓNICA, cuya oferta quedó en segundo lugar en el orden de clasificación definitiva, combate la adjudicación por considerar que la oferta de la adjudicataria debió ser excluida de la licitación por no cumplir dos requisitos técnicos exigidos en el “Anexo-II-Requerimientos del Suministro” del pliego técnico.

1) El citado anexo exige entre los requerimientos particulares para el almacenamiento tipo bloque lo siguiente:

*“La infraestructura propuesta deberá contar con sistemas de réplica remota que aporte un Activo/Activo nativo con Recovery Time Objective (RTO)=0 y Recovery Point Objective (RPO)=0”.*

La recurrente alega que la oferta técnica de la adjudicataria no ha justificado suficientemente o no ha cumplido el valor de RTO igual a cero. Reconoce que no dispone de acceso a la documentación aportada por el licitador en cuanto al cumplimiento de este requisito por ser confidencial, pero funda sus alegaciones en la documentación oficial publicada por NetAPP, fabricante de los equipos que oferta la adjudicataria, con base en la cual concluye que *“si bien NetAPP documenta explícitamente que su solución aporta valor de RPO=0, en ninguno de los documentos, explícitamente, de manera equivalente, refleja que aporta el valor de RTO=0”*, a diferencia de otros fabricantes alternativos que, según dice, sí aportan y documentan oficial y públicamente ese valor de RTO=0.

Añade que la oferta de la adjudicataria no solo no refleja dicho valor RTO=0, sino que aporta referencias de distintos valores que adveran que el valor RTO puede ser más o menos reducido en un tiempo cercano a cero, pero sin llegar al valor RTO=0 requerido taxativamente por el pliego técnico en su Anexo II.

2) El mismo anexo establece entre los



biltegiratzerako eskakizun partikularren artean, honako hau ezartzen du:

Ez da onartuko zerbitzari, gateway edo biltegiratzeko soluziotik kanpoko soluzioen bidez NAS zerbitzu eskaintzen duen soluziorik.

Errekurtsogileak uste du adjudikaziodunak proposatutako soluzioak zerbitzariak (Fujitsu) eta beste elementu batzuk (Cisco) barne hartzen dituela, proposatutako biltegiratzeko soluziotik kanpo daudenak (NetAPP). Kasu honetan ere aitortzen du ez duela lizitatzaila aurkeztutako dokumentaziorako irispiderik, alderdi hori betetzeari dagokionez, konfidentialia delako. Baino alegazio hori eskaintzen balorazio txostenean jasotako baieztapen jakin batzuetan oinarritzen du (Tier-2rako objektuak biltegiratzeko S3 soluzio bat proposatzen da scale-out arkitektura batekin, biltegiratzera sartzeko aukera ematen duena... eskaintzan sartutako Cisco kommutadoreen bitartez, eta, horrez gain, NetApp euskarria...eta eskaintzan sartuta dauden Cisco kommutadoreetarako eta Fujitsu zerbitzarietarako fabrikatzailearen euskarria eransten da).

3. dokumentu bloke gisa, hainbat fabrikatzailek argitaratutako dokumentu ofizialen multzo bat aurkezten du, adierazitako alderdiak egiaztatzen dituela esanez.

Ez-betetze horien ondorioz, eskatzen du jarduerak atzeratzeko eskaintzak baloratzeko unera arte, adjudikazio proposamena onartu aurrekora, prozedurak aurrera egin dezan eta kontratu hurrengo lizitatzailari adjudika dakion.

#### ZAZPIGARRENA.- kontratatzailearen jarrera.

IZFEk bere txostenean eskatzen du errekursoa osorik ezesteko eta aurkaratutako adjudikazioa zuzenbidearen araberakoa dela deklaratzeko.

Kontratu inguruko errekursoei buruzko hainbat organoren ebazenak aipatuz, txostenak, lehenik eta behin, aldez aurreko gogoeta batzuk egiten ditu organo horiek egin dezaketen berrikuspenaren irismenari eta mugei buruz, lizitatzaila baldintza

requerimientos particulares para el almacenamiento tipo fichero lo siguiente:

*“No se admitirán soluciones que ofrezcan servicio NAS mediante servidores, gateways o soluciones externas a la propia solución de almacenamiento”.*

La recurrente considera que la solución propuesta por la adjudicataria incluye servidores (Fujitsu) y otros elementos (Cisco) que son externos a la propia solución de almacenamiento propuesta (NetAPP). En este caso también reconoce que no dispone de acceso a la documentación aportada por el licitador en cuanto al cumplimiento de este extremo debido a su carácter confidencial. Pero funda dicha alegación en determinadas afirmaciones contenidas en el informe de valoración de las ofertas (*“para el Tier-2 se propone una solución de almacenamiento de objetos S3 con una arquitectura scale-out que permite el acceso al almacenamiento... mediante unos switches Cisco incluidos en la oferta”* e *“incluye soporte NetApp... además de soporte del fabricante para switches Cisco y servidores Fujitsu incluidos en la oferta”*).

Acompaña como bloque documental nº 3 un conjunto de documentaciones oficiales publicadas por diferentes fabricantes que dice ser acreditativa de los extremos indicados.

Como consecuencia de tales incumplimientos, solicita la retroacción de las actuaciones hasta el momento de valoración de las ofertas, previo a la aprobación de la propuesta de adjudicación, para que continúe el procedimiento y se adjudique el contrato al siguiente licitador.

#### Erakunde SÉPTIMO.- Posición de la entidad contratante.

IZFE solicita en su informe que se desestime íntegramente el recurso y se declare conforme a derecho la adjudicación impugnada.

Citando resoluciones de diversos órganos de recursos contractuales, el informe empieza por hacer unas consideraciones previas acerca del alcance y los límites de la revisión que estos órganos pueden efectuar en relación con las



agirietan eskatutako baldintza teknikoak betetzearen inguruan kontratacio mahaien hartutako erabakiei dagokienez.

Jarraian, errekurtsogileak alegatutako bi ez-betetzeak banan-banan aztertu ditu.

Lehenengoari dagokionez, RTO=0 betekizunari dagokionez, erakunde kontratatzaleak jakinarazi du aurkeztutako irtenbidearen eta adjudikaziodunak bere eskaintzan proposatutako mekanismoen funtzionamendu teknikoa behar bezala, argi eta garbi eta berariaz justifikatuta eta zehaztuta dagoela, eta modu frogagarrian egiaztatzen duela baldintza agirian ezarritako baldintza teknikoak betetzen dituela, zehazki RTO=0 balioa. Hori frogatzeko, hala justifikatzen duten atalak errepikatu ditu, bai IZFEko teknikariek aurkeztu diren eskaintzei buruz egindako balorazio teknikoaren txostenetik bai ECONOCOM enpresaren eskaintza teknikotik hartutakoak.

Bigarren ez-betetzeari dagokionez, hau da, zerbitzarien bidez edo biltegiratze soluziotik kanpoko soluzioen bidez NAS zerbitzua eskaintzen duten soluzioak ez onartzeari dagokionez, IZFEk ohartarazi du errekurtsogileak epaimahaia nahastu nahi duela baldintza agirian ezarritako betekizunaren esanahi teknikoa desitxuratuz eta argi eta garbi desberdinak diren beste alderdi tekniko batzuk nahastuz; izan ere, baldintza agiri teknikoak eskatzen du eskainitako biltegiratze-kabinak eman behar duela NAS zerbitzu hori, eta ez kabinaren beraren kanpoko elementuek, horrela kabinak kudeatuko baitu osorik biltegiratzea. Baino horrek ez du eragozten, argitu duenez, proposatutako irtenbide globalak kanpoko beste elementu batzuk sartzea NAS zerbitzuarenak ez diren beste eginkizun batzuk egiteko, eta, dirudienez, TELEFÓNICAk oso ondo ezagutzen du hori; izan ere, txostenaren arabera, berak ere sartu ditu bere proposamenean, bideragarritasun teknikoaren, konektitatearen, prozesu-kudeaketaren eta horrelako konponbide orotan begi-bistakoak diren beste premia batzuen beharrengatik.

decisiones de las mesas de contratación relativas al cumplimiento por los licitadores de los requisitos técnicos exigidos en los pliegos.

Seguidamente analiza por separado los dos incumplimientos alegados por la recurrente.

En relación al primero, relativo al requisito del RTO igual a cero, la entidad contratante informa que el funcionamiento técnico de la solución aportada y de los mecanismos propuestos por la adjudicataria en su oferta está justificado y detallado de manera suficiente, clara y expresa, y acredita fehacientemente el cumplimiento de los requisitos técnicos establecidos en el pliego y concretamente del valor RTO=0. Y para demostrarlo reproduce los apartados que así lo justifican tanto del informe de valoración técnica de las ofertas emitido por los técnicos de IZFE como de la propia oferta técnica de ECONOCOM.

En cuanto al segundo incumplimiento, relativo a que no se admitirán soluciones que ofrezcan servicio NAS mediante servidores o soluciones externas a la propia solución de almacenamiento, IZFE advierte de que la recurrente pretende confundir al Tribunal tergiversando el significado técnico del requisito establecido en el pliego y mezclando otros aspectos técnicos claramente diferentes, pues lo que el pliego técnico exige es que ese servicio NAS sea proporcionado por la cabina de almacenamiento ofertada y no por elementos externos a la propia cabina, de forma que la cabina sea capaz de gestionar íntegramente el almacenamiento. Pero eso no impide, según aclara, que la solución global propuesta incluya otros elementos externos para realizar otras funciones diferentes a la del servicio NAS, cosa que TELEFÓNICA, al parecer, conoce perfectamente, pues, según el informe, ella misma los incluye en su propuesta por necesidad de la viabilidad técnica, de conectividad, de gestión de procesos y otras necesidades obvias en toda solución de esta naturaleza.



Hori argitura, IZFEk azaldu du adjudikaziodunaren eskaintzak NAS irtenbide bat proposatzen duela, eta horrek berariaz, osorik eta zalantzari gabe betetzen duela auzitan jarritako baldintza teknikoa, proposatzen dituen NAS biltegiratzeari buruzko elementuek eta transkribatzen duen eskaintzaren atalek egiaztatzen duten bezala; irtenbide hori bikaintzat jotzen du balorazio teknikoaren txostenak, oso kalitate tekniko ona duelako.

Azkenik, adierazi du errekursoari 3. dokumentu-bloke gisa lotutako erreferentziak kontratacio espediente honetatik guztiz kanpo daudela, eta ez dutela inolako zerikusirik adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzarekin, ez baitute inolako aditu- eta argudio-baliorik.

#### ZORTZIGARRENA.- Adjudikaziodunaren alegazioak.

ECONOCOM enpresak errekursoa ezesteko eta adjudikazio erabakia berresteko eskatu du, errekursoak ez duelako oinarririk argi eta garbi.

Alegatu duenez, errekurtsogileak ez du egiaztatu ECONOCOMen eskaintzak baldintza agiri teknikoaren ez-betetze argia, berariazkoa eta eztabaidaezina egin duenik, baztertua izateko arrazoi izan daitekeena, ez eta kontratacio mahaik argi eta garbi huts egin duenik ere, adjudikaziodunaren eskaintzak agiriko baldintza teknikoak betetzen dituela iritzita. Bere iritziz, errekursoa espekulazio hutsezko arrazoibide batean oinarritzen da, kontrastatu gabeko hipotesi soil batean, frog-a-kargaren arloko arauen ageriko urraketarekin, eta horrek ez du biderik ematen kontratacio mahaik egindako eskaintza teknikoen balorazioaren zuzenbidearekiko egokitasun-, egiazkotasun- eta adostasun-presuntzioa suntsitzeko.

Eta aurrekooa errekursoa ezesteko nahikoa dela uste badu ere, ECONOCOM enpresak jarraian arrazoitu du zergatik uste duen bere eskaintza ez dela errekurtsogileak alegatutako ez-betetzeetan

Aclarado eso, IZFE explica que la oferta de la adjudicataria propone una solución NAS que sí cumple de manera expresa, íntegra e inequívoca el requisito técnico cuestionado, como lo acreditan los elementos referidos al almacenamiento NAS que propone y los apartados de la oferta que transcribe; solución que es calificada como excelente por el informe de valoración técnica debido a su muy buena calidad técnica.

Por último, señala que las referencias unidas al recurso como bloque documental nº 3 son completamente ajenas al presente expediente de contratación y nada tienen que ver con la oferta presentada por la adjudicataria, careciendo de toda validez pericial y argumental.

#### OCTAVO.- Alegaciones de la adjudicataria.

ECONOCOM solicita que se desestime el recurso y se confirme el acuerdo de adjudicación porque el recurso carece manifiestamente de fundamento.

Alega que la recurrente no acredita que la oferta de ECONOCOM haya incurrido en un incumplimiento claro, expreso e incontrovertible del pliego técnico que sea determinante de la exclusión, ni que la mesa de contratación haya errado de modo manifiesto al considerar que la oferta de la adjudicataria cumple los requisitos técnicos del pliego. El recurso se basa, en su opinión, en un razonamiento meramente especulativo, en una simple hipótesis no contrastada, con manifiesta infracción de las normas en materia de carga de la prueba, que no permite destruir la presunción de acierto, veracidad y conformidad a Derecho de la valoración de las ofertas técnicas efectuada por la mesa de contratación.

Y aunque considera que lo anterior es suficiente para que el recurso sea desestimado, ECONOCOM razona seguidamente por qué entiende que su oferta no incurre en absoluto en



erori.

ninguno de los incumplimientos alegados por la recurrente.

## Epaimahaiaren oharrak

**BEDERATZIGARRENA.-** Lizitzaile bat kanporatzea bidezkoa izan dadin, eskaintzan jasotako deskribapen teknikoa dela-eta preskripzio teknikoen agiriaren ez betetzeak berariazkoa eta argia izan behar du. Proposamenak baldintza agrietara egokitu beharko direla eta horiek aurkezteak klausulen edo baldintzen erabateko onarpena, salbuespenik edo erreserbarik gabea, dakarrela xedatzen duenean, SPKLren 139.1 artikuluak presuntzio bat ezartzen du, hau da, lizitzaileen proposamenak baldintza-agrietara egokitzen direla.

Kanporatza bidezkoa izango da soilik salatzen den ez-betetzea berariazkoa denean; hori gertatuko da, eskaintzan deklaratutakoa preskripzio teknikoen aurkakoa denean, eta, oro har, ez-betetzea modu objektibo eta ukaezinean egiaztatu daitekeenean. Gainera, ez-betetze argia izan behar du, preskripzio teknikoen agirian behar bezala definitutako elementu objektiboei buruzkoa, eta eskaintzatik ondorioztatu behar da lizitzaileari ezinezkoa gertatuko zaiola eskatutako konpromisoak betetzea.

Aurrekoa kontratueng inguruko errekursoak ebatzeko organoek behin eta berriz erabiltzen duten doktrina da, zeina laburbilduta baitago, adibidez, Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentralaren azaroaren 12ko 1610/2021 Ebazpenean.

**HAMARGARRENA.-** Espediente an jasota dago eskaintzen balorazio teknikoari buruzko txostena, kontratacio mahaiak eskatuta IZFEko bost teknikarik egindakoa: IKT zerbitzuetako arduradunak, Zerbitzarien eta Biltegiratzearen arduradunak eta Zerbitzarien eta Biltegiratzearen ataleko hiru teknikarik.

Hasteko, aurkeztutako eskaintzak aztertzen

## Apreciaciones del Tribunal.

**NOVENO.-** Para que proceda la exclusión de un licitador, el incumplimiento del pliego de prescripciones técnicas por la descripción técnica contenida en su oferta ha de ser expreso y claro. Al disponer que las proposiciones deberán ajustarse a los pliegos y que su presentación supone la aceptación incondicionada de sus cláusulas o condiciones, sin salvedad o reserva alguna, el artículo 139.1 LCSP viene a establecer una presunción de que las proposiciones de los licitadores se ajustan a los pliegos.

La exclusión solo procederá cuando el incumplimiento que se denuncia sea expreso, cosa que ocurrirá no solo cuando lo declarado en la oferta se oponga abiertamente a las prescripciones técnicas, sino, en general, cuando el incumplimiento pueda ser constatado de manera objetiva e irrefutable. Ha de tratarse, además, de un incumplimiento claro, referido a elementos objetivos perfectamente definidos en el pliego de prescripciones técnicas, y ha de deducirse de la oferta que al licitador le va a ser imposible cumplir con los compromisos exigidos.

Lo anterior constituye una doctrina reiterada de los órganos de resolución de recursos contractuales, resumida, por ejemplo, en la Resolución 1610/2021 de 12 de noviembre, del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales (TACRC).

**DÉCIMO.-** Consta en el expediente el informe de valoración técnica de las ofertas emitido a instancia de la mesa de contratación por cinco técnicos de IZFE: la responsable de servicios TIC, la responsable de Servidores y Almacenamiento y tres técnicos de Servidores y Almacenamiento.

Empiezan por analizar las ofertas presentadas para



dituzte, oinarri teknikoen agirian eskatutako baldintzak betetzen ote dituzten egiaztatzeko, eta ikusten dute horietako batek, DATA BASE STORAGE SLrenak, ez duela II. eranskinoko baldintzetako bat betetzen; horretarako arrazoia azaltzen dituzte eta prozeduristik kango uztea proposatzen dute, ez-betetze horren ondorioz.

Era berean, beste hirurek agiri teknikoko eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzen dute, eta berariaz jasotzen dute hori txostenean.

Ondoren, balio-judizioen bidez ebaluatzeako diren irizpideak baloratzen dituzte, administrazio klausula partikularren agirian ezarritakoaren arabera:

- Proposamen teknikoa, 44 puntu, honela banakatuta:

Bloke motako biltegiratzea, 11 puntu.

Fitxategi motako biltegiratzea, 11 puntu.

Prozesuak kudeatzeko eta automatizatzeko tresnak, 7 puntu.

Bloke motako biltegiratzearen kontingentzia plana, 5 puntu.

Fitxategi motako biltegiratzearen kontingentzia plana, 5 puntu.

Euskarri- eta mantentze-zerbitzuaren plana, 5 puntu.

- Instalazio eta migracio plana, 5 puntu.

Bada, balorazio hori egitean, IZFEko teknikariek ez dute aurkitu ECONOCOMen eskaintza baztertzeko inolako arrazoirik; aitzitik, bikain gisa kalifikatzen dute, eta gehieneko puntuazioa eman diote errekurtsogileak alegatutako ez-betetzeekin zerikusia duten bi adjudikazio irizpidetan.

comprobar si cumplen los requisitos exigidos en el pliego de bases técnicas, y aprecian que una de ellas, la de DATA BASE STORAGE S.L., no cumple uno de los requisitos del Anexo II del pliego, razonan por qué y proponen excluirla del procedimiento debido a ese incumplimiento.

Asimismo, verifican que las otras tres cumplen los requerimientos del pliego técnico y así lo hacen constar expresamente en el informe.

A continuación, llevan a cabo la valoración de los criterios evaluables mediante juicio de valor de acuerdo con lo establecido en el pliego de cláusulas administrativas particulares:

-Propuesta técnica, 44 puntos desglosados así:

Almacenamiento Bloque, 11 puntos.

Almacenamiento Fichero, 11 puntos.

Herramientas de Gestión y Automatización de Procesos, 7 puntos.

Plan de Contingencia en Almacenamiento Bloque, 5 puntos.

Plan de Contingencia en Almacenamiento Fichero, 5 puntos.

Plan del servicio de soporte y mantenimiento, 5 puntos.

-Plan de instalación y migración, 5 puntos.

Pues bien, al realizar esa valoración los técnicos de IZFE no solo no encuentran ningún motivo de exclusión de la oferta de ECONOCOM, sino que la califican de excelente y le otorgan la máxima puntuación en dos criterios de adjudicación que guardan relación con los incumplimientos alegados por la recurrente.



**HAMAIKAGARRENA.-** Hain zuzen ere, bloke motako biltegiratzerako eskakizunen artean, ezaugarri teknikoen agiriaren II. eranskinak eskatzen du proposatutako azpiegiturak urruneko erreplika-sistemak izan beharko dituela, Recovery Time Objective (RTO) = 0 eta Recovery Point Objective (RPO) = 0 duen aktibo/aktivo natibo bat emateko.

Errekurtsogileak alegatu du adjudikaziodunaren eskaintza teknikoak ez duela behar beste justifikatu RTO = 0 balioa betetzen duenik. Alabaina, Bloke motako biltegiratzearen kontingentzia planaren irizpidea baloratzean, IZFEko teknikariek gehieneko puntuazioa eman diote eta ECONOCOMen eskaintza bikaina dela adierazi dute, honako arrazoi hauen arabera:

Proposamenak, MetroCluster teknologian oinarritutako soluzio aktibo/aktivo batean eta erreplikazio sinkronoan oinarritua, etengabeko eskuragarritasuna eta webgunearren erroreagatiko kommutazio automatikoa eskaintzen ditu Mediator eta RTO = 0 eta RPO = 0ri esker; horrenbestez, balio handia ematen du eta atalean eskatutako premiei erantzun optimoa ematen zaiela bermatzen da. CPDen artean zerbitzua kommutatzeko sistemak egiten dituen ekintzak zehazten dira.

Bestalde, fitxategi motako biltegiratzea egiteko eskakizunen artean, agiri teknikoaren II. eranskinak dio ez dela onartuko zerbitzarien, gatewayen edo biltegiratze-soluziotik kanpoko soluzioen bidez NAS zerbitzua eskaintzen duen soluziorik.

Errekurtsogileak uste du adjudikaziodunak proposatutako soluzioak barne hartzen dituela eskainitako biltegiratze-soluziotik (NetAPP) kanpo dauden zerbitzariak (Fujitsu) eta beste elementu batzuk (Cisco). Alabaina, Fitxategi motako biltegiratzea irizpidea baloratzean, IZFEko teknikariek gehieneko puntuazioa eman diote ECONOCOMen eskaintzari eta eskaintza bikaina dela adierazi dute, arrazoi hauek emanda:

Proposamenak balio handia ematen du, Tier-1 bloke eta fitxategirako soluzio egoki bateratu bat proposatuz. Horrek instalazioa eta kudeaketa errazten ditu, funtzionalitate asko bi inguruneetan aplikatzen baitira. Oso kalitate tekniko ona du, eta bereziki nabamentzen da fitxategiko Tier-1 eremurako High-end modeloko kabina bat proposatzen dela, all-flash Full NVMe sistemetan oinarritutako arkitektura

**UNDÉCIMO.-** En efecto, entre los requerimientos para el almacenamiento tipo bloque, el Anexo II del pliego técnico exige que *“la infraestructura propuesta deberá contar con sistemas de réplica remota que aporte un Activo/Activo nativo con Recovery Time Objective (RTO)=0 y Recovery Point Objective (RPO)=0”*.

La recurrente alega que la oferta técnica de la adjudicataria no ha justificado suficientemente que cumple el valor RTO=0. Pues bien, al valorar el criterio Plan de Contingencia en Almacenamiento Bloque los técnicos de IZFE otorgan la máxima puntuación y califican la oferta de ECONOCOM de excelente en este aspecto con la siguiente motivación:

*“La propuesta, basada en una solución Activo/Activo basada en tecnología MetroCluster y replicación síncrona que ofrece disponibilidad continua y conmutación automática por error de sitio gracias a Mediator y RTO=0 y RPO=0, aporta un gran valor y se garantiza una respuesta óptima a las necesidades solicitadas en el apartado. Se detallan las acciones que realiza el sistema para la conmutación de servicio entre CPDs”.*

Por otra parte, entre los requerimientos para el almacenamiento tipo fichero el Anexo II del pliego técnico dice que *“no se admitirán soluciones que ofrezcan servicio NAS mediante servidores, gateways o soluciones externas a la propia solución de almacenamiento”*.

La recurrente considera que la solución propuesta por la adjudicataria incluye servidores (Fujitsu) y otros elementos (Cisco) que son externos a la propia solución de almacenamiento ofertada (NetAPP). Sin embargo, al valorar el criterio Almacenamiento Fichero los técnicos de IZFE otorgan la máxima puntuación y califican la oferta de ECONOCOM de excelente con la siguiente motivación:

*“La propuesta aporta gran valor proponiendo una solución óptima unificada para bloque y fichero Tier-1, lo que facilita la instalación y gestión, ya que muchas de las funcionalidades se aplican a ambos entornos. Muy buena calidad técnica, destacando especialmente que para el Tier-1 de fichero se propone una cabina de modelo High-end con una arquitectura sencilla basada en sistemas all-flash Full*



simplea duena, Scale-in Full NVMe ahalmen handia duena eta errendimendu oso handia duena; Tier-2rako, berriz, objektuak biltegiratzeko S3 soluzio bat proposatzen da, scale-out arkitekturarekin, zeinak aukera ematen baitu biltegiratzean sartzeko sare korporatibotik, eskaintzan sartuta dauden Cisco kommutadoreen bidez. Zerbitzuaren jarraitutasuna modu bikainean bermatzen du, bi Tier-etako erreplika sinkronoa egiteko gaitasunari esker.

Errekurtsoari buruz orain emandako txostenean, IZFEK hitzez hitz errepikatzen ditu ECONOCOMen eskaintzaren atalak, eta horietatik ondorioztatzen du argi eta garbi eta berariaz betetzen dituela aipatutako baldintza teknikoak, eta modu eztabaideazinean berresten du bere garaian emandako balorazio txosten teknikoa.

**HAMABIGARRENA.-** Kontratacio organoaren erabakia lizitatzaleek aurkeztutako dokumentazioa azterzen duen txosten tekniko batean oinarritzen bada eta ondorioztatzen badu eskaintza jakin batek baldintza agirietan eskatutako eskakizun teknikoak betetzen dituela, txosten hori indargabetzeko beharrezkoia izango da okerra edo funtsik gabea dela egiazatzeko nahikoa den frogua bat aurkeztea.

Kasu honetan, TELEFÓNICA errekurtsoa aurkeztu du ECONOCOMen eskaintzaren edukia ezagutu gabe eta plegu teknikoaren ustezko ez-betetzeen oinarri izan daitezkeen frogaprintzipiorik aurkeztu gabe. Besterik gabe, kontratacio mahaiaren iritziaren ordez berea jarri nahi du, adjudikaziodunaren eskaintza desegokitzat jo dadin.

Errekurtsoarekin batera, hainbat fabrikatzailek argitaratutako dokumentu ofizialen multzoa aurkeztu zuen, ustez ez-betetzeak egiazatzeko. Hala ere, bai IZFEk bai ECONOCOMek horri dagokionez adierazi dute dokumentazio horrek ez duela zerikusirik adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintza teknikoarekin, hark eskainitakoaz bestelako soluzioei buruzkoa baita.

*NVMe, gran capacidad Scale-in Full NVMe y muy alto rendimiento, mientras que para el Tier-2 se propone una solución de almacenamiento de objetos S3 con una arquitectura scale-out que permite el acceso al almacenamiento desde la red corporativa mediante unos switches Cisco incluidos en la oferta. Garantiza excelentemente la continuidad del servicio gracias a la capacidad de réplica síncrona en ambos Tier”.*

En el informe evacuado ahora en relación con el recurso, IZFE reproduce textualmente los apartados de la oferta de ECONOCOM de los que deduce que cumple de manera clara y expresa los requisitos técnicos en cuestión, y ratifica de manera concluyente el informe técnico de valoración emitido en su día.

**DECIMOSEGUNDO.-** Cuando la decisión del órgano de contratación se basa en un informe técnico que analiza la documentación aportada por los licitadores y concluye que una determinada oferta cumple los requisitos técnicos exigidos en los pliegos, tal informe requiere, para ser desvirtuado, de una prueba suficiente que acredite que es erróneo o infundado.

En el presente caso, TELEFÓNICA formula el recurso sin conocer el contenido de la oferta de ECONOCOM y sin aportar ningún principio de prueba en el que se puedan sustentar los pretendidos incumplimientos del pliego técnico. Simplemente, pretende sustituir el juicio de la mesa de contratación por el suyo propio y que se califique como no apta la oferta de la adjudicataria.

Acompaña al recurso un bloque documental consistente en un conjunto de documentaciones oficiales publicadas por diversos fabricantes, supuestamente acreditativas de los incumplimientos. Sin embargo, tanto IZFE como ECONOCOM señalan a este respecto que esa documentación nada tiene que ver con la oferta técnica presentada por la adjudicataria, pues se refiere a soluciones distintas de la ofertada por ésta.



Horrenbestez, errekurtsogileak ez du indargabetu kontratacio mahaiaren erabakiaren egokitasun presuntzioa eta legezkotasuna, kontratacio mahaiak berak eskatutako balorazio teknikoko txosten batean oinarritutakoa, eta, beraz, errekurtsoa ezetsi egin behar da.

**HAMAHIRUGARRENA.-** Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileari isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLak 58.2 artikuluau aurreikusitakoaren arabera.

Horren arabera, Kontratacio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

Así las cosas, la presunción de acierto y legalidad de la que goza el acuerdo de la mesa de contratación, basado en un informe de valoración técnica que ella misma solicitó, no ha sido desvirtuada por la recurrente, por lo que el recurso debe ser desestimado.

**DECIMOTERCERO.-** No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

#### ERABAKITZEN DU

#### ACUERDA

**LEHENA.-** TELEFÓNICA SOLUCIONES DE INFORMÁTICA Y TELECOMUNICACIONES, S.A.U. enpresak kontratacio arloan aurkeztutako errekurtso berezia ezestea.

**BIGARRENA.-** Adjudikazio egintzaren etenaldia indargabetzea.

SPKLk 59.1 artikuluau xedatutakoaren arabera, ebaZen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

**PRIMERO.-** Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por TELEFÓNICA SOLUCIONES DE INFORMÁTICA Y TELECOMUNICACIONES S.A.U.

**SEGUNDO.-** Levantar la suspensión del acto de adjudicación.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2022ko maiatzaren 26a / San Sebastián, 26 de mayo de 2022.**